

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 249. zkia. 2016ko urria



**San Martin Azoka:
Azaroaren 12an,
baserria plazara**

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta implante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea
 Hertz klinika berritu eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIO
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Markos Gimeno,
Iñigo Lejardi, Patxi López,
Valentin Mugarza
eta Ongarai Eskola.

ARGAZKIAK:

Amaia Arginzoniz,
Artarrai Mendi Taldea,
Paul Bustindui,
Ermuko Udala,
Leire Goienetxea,
Markos Gimeno,
Estibalitz González,
Iñigo Lejardi,
Marta Moreno,
Valentin Mugarza,
Rocío Núñez, Ongarai Eskola,
Lorena Ottero, Lorea Rojo
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Kanta-kantari etorriko gara laster orriotara. Alboka Musika Eskolarekin elkarlanean, datorren hiletik aurrera kantu herriko baten letra topatuko duzu sail honetan. Berorren melodia entzun nahi izanez gero, www.alboka.es webgunera jo eta bertan, audioaz gain, abesti horren gaineko hainbat argibide irakurri ahal izango dituzu. Kantuetako asko ahos ahoko ibilbide luzea eginez ailegatu dira gurera, urteen eta belaunaldien galbahea pasatu ostean. Ikasiz, abestuz, zeure eginez... zabaldu!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Iñigo Lejardi (Erresuma Batua)	BOTEPRONTOAN16 Marivi Lista
ELKARRIZKETA5-7 Izaro Andres abeslaria	KIROLZALE17 Lorea Rojo sokatiralaria
MALLABIAN ZER?8-9 Berbalagun egitasmoa	IRITZIA18 Probatuak badaki
MOTZEAN.....10-11 Euskaltzaleen Sarearen bilera	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN12-13 Oharra eta San Martin Kulturala	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER14 Marta Moreno Perun	KALEKO INKESTA21 Zein garraio-txartel erabiltzen dituzu?
ESKOLEN TXOKOA15 Ongarai Eskolako berriak	AGENDA22 Azaroko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Iñigo Lejardi

2014az geroztik Londresen bizi da Iñigo Lejardi ermuarra. Master bat ikasten eta Sohoko jatetxe batean lanean dihardu, baina bere bidaia 2010ean hasi zen. Gironara joan zen orduan ikastera, selektibitateko emaitzak ikusita, aukera gutxi zituelako Bioteknologia ikasketak EHUn egiteko.

- Erabaki erraza izan zen Gironara joatea?

Egia esan, amak hartu zuen erabakia. Ni trankil negoen EHUn sartuko nintzelakoan, baina ama badaezpada ere alternatibak bilatzen hasi zen. Eskerak bidali zituen estatuko 20 zentro baino gehiagotara, 3 edo 4tik erantzun zuten, eta Girona aukeratu nuen.

- Eta handik Londresera...

2014an, karrera amaitu eta gero, Londresera joatea erabaki nuen. 2012ko uda han pasa nuen eta hiriak txunditu ninduen.

- Joan baino lehen, zer zenekien hiri hartaz?

Informazio pilo bat neukan. Hala ere, ezin izan nuen nire buruan idea finko bat eraiki, horregatik ez nuen inongo beldurrik edo urduritasunik, eta gertaerei erosotasun eta lasaitasunez aurre egin nien.

- Eta nolakoa da Londres?

Eguraldia hemengoaren antzekoa da eta uste dut ingelesek eta euskaldunok ere antzekotasun asko ditugula. Dena dela, beti esaten dut Londres eta Erre-



suma Batua oso gauza desberdinak dira. Londres hain da kosmopolita eta aldakorra, ez duela Ingalaterrako hiriburua ematen. 9 milioi pertsona inguru, horietatik %40 atzerritarrak, 300 hizkuntza baino gehiago erabiltzen dira... Harritzen nauena da kultura nahaste horretatik nahiko ondo funtzionatzen duen hiri bat zelan garatu den.

- Ondo moldatzen zara ingelesez?

Oso ondo. Txikitatik ikasi dut, eta Londresen Master bat ikasteak eta lan egiteak sekulako erraztasuna eman dit idazteko, ahoskerarako eta kaleko esamoldeak erabiltzeko.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak, gehiengoak bezala. Gauza gutxi batzuk ordezkaezina dira. Londresen kristoren juergak antolatzen dituzte, eta rave kultura pil-pilean dago, baina Ermuan bezalako poteorik ez dago munduan inon!

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Ikasten ez banago, lanean nabil Sohoko jatetxe batean, Flat Iron izenekoa. Bestela, lagunekin puben batean, antzerki bat ikusten edota erakusketa batean. Juergarako denbora ez da falta eta horretarako Dalstoneko tabernetara edo Hackney Wick-eko lantegi abandonatueta joaten gara. Oso gustura bizi naiz Londresen.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Gabonetan egon nintzen azkenekoz eta ez dakit noiz bueltako naizen. Amak dio lotsabako bat naizela, hain gertu egonda ez naizelako sekula etortzen. Beste leku batzuetara bidaiatzeko aukerak izan ditut azkenaldian eta aprobetxatu beharra nuen.

- Ermura bizitzera bueltatuko zara?

Bisitan etorriko naiz, baina ez dut nire burua Ermuan bizitzen ikusten.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Argazkia: Lorena Oñero.

Izaro Andres, abeslaria:

“Adelek betetzen dituen estadioak bete nahiko nituzke”

Iazko martxoan elkarrizketa egin genion Izaro Andresi orriotan. Denbora gutxi igaro da ordutik, mallabitar honen bizitza hankaz gora ipintzeko behar beste: lagun batekin grabatutako *Paradise* bideoak sekulako arrakasta izan zuen (gaur egun 40.000 bisitatik gora ditu YouTube) eta bakarrik urtebete jotzen aritu eta gero, banda topatu zuen. Iker Lauroba, Ane Bastida eta Oriol Fuentesekin batera lehen diskoa kaleratu du irailaren 23an, *Om*, 13 kantuz osatutako altxor gozoa. Zuzenekoetan atzamarrak dardarka zituen neska trebatu da, eta segurtasunez aritzen den musikari bihurtu. Egiaztatzeko aukerak non-nahi: Hemendik eta abendura bitartean, gutxienez kontzertu bat eskainiko du astebururo.

- **Lagunartean grabatutako Paradise bideoak arrakastaren atea zabaltu zizkizun.**

Bai, uste dut gure bideorik ikusiena izango dela, ezin izango dugula inoiz berdindu. Horrek erakutsi zidan musika bidea izan zitekeela, eta hortik aurrera oso bizkor gertatu da dena. Atzerrira ikastera joan nintzen, eta bueltan diskoa grabatzeko crowdfunding kanpaina abiatu genuen. Espero baino diru gehiago lortu genuen oso denbora gutxian. Oso ondo irten da dena, flipatzen ari gara.

- **Om, zure lehen diskoa, kalean dago. Zer jasotzen du?**

Azken lau urteetako nire sentimenduen zurrunbiloa, nire istorioak. Nahiko disko kontzeptuala da eta polita izan da berau egitea, prozesu arazgarria izan delako: Nire kantu guztiak hartu, onak eta txarrak, eta guztien arteko oreka bilatu dut. Nire bandak horretan lagundu dit, eta mimoz betetako historia osatu dugu.

- **Zergatik Om?**

Bibrazio basikoa delako, pixka bat espirituala, eta guk ere rolo energetiko bat lortu dugu.

- **Zenbat ale kaleratu dituzue?**

Mila ale. 500 dendatan daude salgai; gainontzekoak nik saldu ditut kontzertue-

tan eta crowdfunding bitartez babesa eman zigutenei. Seguruena beste labekada txikia atera beharko dut Durangoko Azokarako.

- **Izan ere, hamaika kontzertu egin dituzue, eta Gabonak bitartean beste hainbeste dituzue lotuta, ezta?**

Bai, eta batzuetan ezetz esan behar izan dugu: azken astean esaterako, 7 kontzertu ezetz esan behar izan diet, agenda topera dugulako.

- **Euskal Herritik kanpo aritu zarete?**

Bartzelonan pare bat bider jo dugu. Horrez gain, Etxepare Institutuak aukeratu gaitu "Artistas en ruta" programan parte hartzeko, eta diru-laguntza jaso dugu 2017ko lehen hiru hilekoan lau kontzertu antolatzeko estatuan zehar. Gogotsu gaude, baina errespetua ematen digu.

- **Zer moduz moldatzen zara zuzenekoetan?**

Oso ondo, batez ere jendea isilik badago, adi. Hasieran oso urduri egoten nintzen; orain urduritasuna badaukat, baina gehiago da "ea nolakoa den gaurko publikoa". Ikasten duzu. Adibidez, lehen ki-bo bat irtetea heriozko bekatua zen; orain, barre egiten dut, eta aurrera! Mikrofonoari haginekin ematen badiot, ez da ezer pasatzen. Barregarri geratzeko beldur hori gal-



du dut. Horretan nire bandak ere zerikusia du, babestu egiten naute.

- **Nortzuk osatzen dute zure taldea?**

Iker Laurobak (Lauroba), Ane Bastidak (Lauroba eta Amor de Tokyo) eta Oriol Floresek (Gure Bazterrak, Anje Duhalde, Eñaut Elorrieta...). Profesionalak dira, urte asko daramatzate, ikasketak dituzte, eta badakite gauzak nola egiten diren. Polita da, nik hasiberriaren ilusioa daukadalako, eta eurak kontagiatzen ditut; aldi berean, ni euren jakituriaz aberasten naiz. Konpentsatu egiten da. Diskoan beste baxu-jotzaile batek ere hartu du parte, Julen Barandiaranek.

- **Lagunen babesa ere garrantzitsua da?**

Bai, 24 orduko psikologoak ditut! Horien artean lagun berezia da Eider Chaves, nire emaztea da gutxi gorabehera. Nik baino negar gehiago egiten du kontzertuetan.

- **Gitarra jo eta kantatzeaz gain, abestiak idazten dituzu. Zer hartzen duzu oinarri?**

Pertsonak, beti. Pertsonak sorrarazi dezaketen sentimenduren bat, momenturen bat edo egoeraren bat. Nire kantu guztiek dituzte atzetik izen-abizen bat.

- **Noiz izaten dituzu momenturik emankorrenak?**

Triste nagoenean. Pozik banago ez dut kantatzen, pozik nago eta listo, lagun batekin noa kafe bat hartzera. Goibel banago "ai ai ai, gitartxo, sendatu nazazu" esaten dut, terapia modura.

- **Orduan, abesti tristeak idazten dituzu?**

%95 bai. Musika aldetik gozoak dira, mimatuak, badute bere xarma. Baina letra entzuten baduzu, badute kontraste hori. Letra guztiak dira oso malenkoniatsuak, erraietatik idatzita daude.

"Azken 4 urteotako nire sentimenduen zurrunbiloa jasotzen du Om diskoak"



Drogetenituri, 249 zkia.




SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Batzuk maitasunaren alde positiboak ere ateratzen dituzte, baina oro har nostalgikoak dira.

- *Eta hizkuntza ezberdinetan idatzita daude, ezta?*

Bai, gehienbat euskaraz, eta gero ingelesezko eta gaztelaniazko abestiak daude. CDa horrela egin nahi nuen, produktu euskalduna izatea nahi nuelako. Hasieratik jaso ditudan kritikak jasota, ikusi dut hizkuntzena terreno gaitza dela oraindik. Nik pentsatzen dut hizkuntzek elkar elikatzen dutela, eta elkarri laguntzeko direla eta sinisten dut horretan, eta horrela egin dut eta funtzionatzen du.

- *Zein hizkuntzatan sentitzen zara erosoen?*

Hiruretan, bakoitzak gauza bat ematen dit. Adierazi nahi dudaren arabera, bata edo bestea aukeratu

du, nahigabe: abestia dator eta datorren moduan doa.

- *Aurreko elkarrizketan komentatzen zenuen ingelesera moldatzen zela hobekien zure ahotsa...*

Bai, ia ahots guztiak moldatzen dira hobeto ingelesera, melodikoagoa delako, hitz oso laburrak ditu, ia dena silaba batean esaten da... Errazagoa da kantatzea. Gaztelania eta euskara zailagoak dira, batez ere euskara, oso gogorra delako.

- *Nola daramatzazu kritikak?*

Ondo, onak zein txarrak. Oso zaila da kritika onak jasotzea ere, erantzukizun handia sortzen didatelako. "Neska honek egingo du ganorazko zerbait". Ostras! Egin beharko dut ganorazko zerbait, bestela pentsatu!!

- *Nola aldatu da zure bizi-tza azken hilabeteotan?*

"Oso zaila da kritika onak jasotzea, erantzukizun handia sortzen didate"

Gutziz, batez musikari eskaintzen diodalako denbora gehien. Komunikazio ikasketak bukatu nituen eta, lana topatzen hasi baino lehen, hau egin nahi nuen. Lan orduak honetan ematen ditut. Eta ordu libreak ere, ordutegiak oso arraroak baitira. Orain dena da musika. Eta oso pozik nago, ametsa bizitzen ari naiz. Paradisuan total.

- *24 orduz musikan murgilduta. Zer galdu duzu bitartean?*

Denbora. Ez dut galdu, baina ez daukat ia denbora librerik. Ahazten zait laneguna edo asteburua den, ez daukat egun gorririk. Faltan botatzen dut aspertzea, zereginik ez izatea 3 egun jarraian!

- *Zein itxaropen dituzu epe laburrera?*

Musikatik bizi nahiko nuke, ez dakit ahal izango dudana finantzaketa kontuak zailak direlako, baina bai behintzat honetarako bizi. Hau egin nahi dut urte luzez.

- *Zein da zure helmuga?*

Badakit guztiz ezinezkoa dela, baina nire nahia da

KONTZERTUAK

Urria

28 Durango (Plateruena, 21:30).
30 Ziburu (Maitenia, 19:00).

Azaroa

9 Ondarroa (Arrigorri).
11 Legorreta (Herri Antzokia).
12 Lekeitio (Otoio taberna).
18 Tolosa (Bonberenea).

Adelek betetzen dituen estadioak betetzea, bere herrialdetik kanpo: Estadio bete jende, espektakulurik gabe, bere ahotsarekin soilik, denak adi... txapela kentzekoa da!

- *Berrito aipatu duzu jendea adi egotearena. Zer dela-eta?*

Jende askok ez duelako errespeturik. Orain arte zortea izan dut, baina batzuetan publikoa berbetan hasten da, oso altu barre egiten dute... Nik ere horrela jokatzeko nuen batzuetan, eta orain konturatzen naiz zenbat min ematen dion horrek eszenatoki gainean dagoenari.

Dorleta Vidal



Argazkia: Lorena Ottero.

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



Abian da beste urte batez Berbalagun egitasmoa Mallabian

AEK-k eta Mallabiko Udalak beste urte batez berriro dute Berbalagun praktika proiektua euskara sustatzeko asmoarekin. Aurreko urteetako dinamika berbera jarraituz, asteroko ekintzez gain, beste hainbat proposamen eta ekitaldi prestatzen ari dira.

Aurtengo berezitasunen artean publiko euskaldunak euskara gehiago erabiltzeko helburua dago, bai Berbalagunek bai Mallabiko Udalak konpartitzen dutena. “Euskaldungoa motibatu eta kontzientziatzea dugu helburu bi elkarteok”, azaldu du Juanmi Bravok, Berbalagun egitasmoko dinamizatzaileak. Horretarako, Karmelo Ayestak hitzaldia

emango du, bere *Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza bidaia* liburua aurkeztuz. “Egunerokotasunean euskara sustatzen laguntzeko prestatuta dago hitzaldia”, dio Bravok.

Bestalde, astero lanean dauden berbataldeak ere sendotu nahi dituzte. Goizez eta arratsaldez dauden taldeez gain, aurten Gurasolagun taldeko kopurua handi-



tzea ere xede dute. Horretarako, aurretiaz egitasmoan parte hartu duten pertsonen beste pertsona bat gonbidatuko dute Berbalagunera. “Azken urteetako taldeak mantentzeaz gain, jende kopurua handitu nahi dugu, bereziki Gurasolagun taldea”, dio AEKko dinamizatzaileak. Hiru hilean behin, Gurasolagun irekiak jendeari gonbitea egingo dio taldera batzeko. 16:00etatik 17:00etarako tartean ekintza ezberdinak egingo dira eskolako frontoian herriko begiraleen laguntzaz. Horrez gain, eskolako esparru horretan dagoenari, egun horretan, euskaraz aritzeko gonbitea egingo zaio.

Urtero bezala, praktika jarduera gehiago ere egingo dira. Mintzodromoa beste urte batez prestatuko da.

Honez gain, bi berbafari egingo dira Berbalaguneko taldeen partaidetzarekin herriko elkarte gastronomikoentzat. Tailer bat ere egongo da kurtso honetan aurreko urteetako dinamika jarraituz. Txistodromoa ere prestatzen daude aurten. “Euskara bultzatzeko egiten ditugun egun solte hauetan aurreko urteetan izan dugun jendearen erantzun positiboarekin jarraitu nahi dugu”, gehitu du Bravok.

Berbalagun egitasmoan parte hartu edo informazio gehiago jaso nahi dutenek bide hauek dituzte: 663070492 telefono zenbakia, ermua_berba@aekeus helbide elektronikoa, Ermuko AEK Euskaltegia eta Mallabiko Kultur Etxea eta Liburutegia.

Paul Bustindui



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

URRIKO JAIK

Beste urte batez, eta Mallabiko elkartearen laguntzarekin, hileko azken asteburuan ospatuko dira Urriko jaiak. Aurreko urteko jendearen erantzun onaren ostean, aurten ere "Elegante Eguna" ospatuko da ostiralean Mallabiko Gazte Taldearen eskutik. Zapatuan, urtero lez, punta-puntako kontzertuak izango dira plaza nagusian. Hasteko The Bon Scott Band taldekoek AC/DC mitikoen abestiak joko dituzte Vendetta taldeari txanda emateko. Duela bi urte bezala, aurten ere talde nafarra Mallabiko oholtza gainera igoko da. Bukatzeko Dj Bullek erromeriako zein azken momentuko abestiekin dantzan jarriko du plaza. Igandean, gaztetxoei zuzendutako ekitaldiek emango diete bukaera jaiari.

BERTSOLARI GAZTEEN TXAPELKETA

Mallabiko Gazte Taldeak bertsolari Gazteen II. Txapelketa antolatu du azarorako. Bi kanporaketa izango dira zortzi bertsolariekin. Saio bakoitzeko bi onenekin finala izango da. Azaroaren 4ko bertso-afarian Mikel Artola, Gorka Maiz, Eneko Araiztegi eta Amaia Elizagoien arituko dira Trabaku Goikon. Azaroaren 18an Trabaku Behekoan, berriz, Unai Mendizabal, Eñaut Martikorena, Mikel Retolaza eta Eli Pagola. Finala abenduaren 2an izango da Herriko soziedadean. Dagoeneko salgai daude hiru ekitaldietarako tiketak, 20 euroko prezioan bakoitza.

BASERRIKO LANABESAK, TRESNAK ETA TREPETXUEK LIBURUA AURKEZTUKO DA KONTZEJUZARREAN

Azaroaren 24an, osteguna, Pello Mugarzak, Justo Azagirrek eta Jesus Mari Uribelarreak idatzi duten liburua aurkeztuko da Kontzejuzarrean: *Baserriko lanabesak, tresnak eta trepetxuek*. Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

URRIKO JAIETAKO EGITARUA

URRIAK 22, larunbata:

- 10:00 Futbito txiki eskolan. Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

URRIAK 27, osteguna:

- 19:00 Nesken gomazko MPB paleta zirkuitua finalaurrekoak frontoian.

URRIAK 28, ostirala "Elegante eguna":

- 16:00 Merendola eta tailerrak umeentzat eskolan.

Antolatzailea: Guraso Elkartea.

- 17:00 Buruhandiak. Antolatzailea: Guraso Elkartea.

- 18:00 Txupinazoa.

- 19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala.

- 20:00 Oilasko pintxoak plazan. Tiketak: 1,50€.

- 20:30 "Elegante Eguneko" argazkia elizpean. Antolatzailea: Mallabiko Gazte Taldea.

- 21:30 Akerbeltz taldearekin erromeria plazan.

- 00:00 Miss eta Mister sarien aukeraketa. Botoak Herriko Tabernan eta Bastidan eman ahalko dira.

Antolatzailea: Mallabiko Gazte Taldea.

URRIAK 29, larunbata:

- 11:00 Duatloi txikia herrian. Antolatzailea: Guraso elkartea.

- 12:00 Mallabiko I. Arda Ferixie Kontzejuzarrean.

Sarrera: 5€. Antolatzailea: Ardosaltsan.

- 16:00 Litxarrerria tailerra umeentzat frontoian.

- 22:30 Rock kontzertuak parkean: The Bon Scott Band, Vendetta eta DJ Bull.

URRIAK 30, igandea:

- 12:00 Gaztetxoaren arteko pilota partiduak frontoian.

Antolatzailea: Mallabia I Pilota Eskola.

- 17:00 "Tomasen abenturak" pailazoak frontoian.

- 17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean.

- 18:30 Txokolatada plazan.

URRIAK 31, astelehena:

- 17:30 Nesken gomazko MPB paleta zirkuitua finala eta eskolarteko nesken partiduak frontoian.



Herriko Taberna

- Platerak
- Entsaladak
- Bokatak
- Pizzak
- Hanburgesak
- Sandwichak

...eta enkarguz nahi duzun guztia!

Askaldea 3 · 943 17 49 52



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza



SEHIGA

PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak



Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



MUGA

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

**“BERDINTASUNEAN
URBANIZATZEN”
IKASTAROA AZAROAN**

Azaroaren 2an eta 9an “Berdintasunean urbanizatzen” ikastaroa burutuko da Emakumeen Topalekuan, 17:00etatik 19:00etara. “Hirigintzaren lanbidean zehazten diren, eta gure eguneroko bizitzan zuzenean eragiten duten aspektu ezberdinak aztertzen eta horien inguruan gogoe-ta egiten ahaleginduko gara”, diote antolatzaileek. Prezioa, 5 euro.

**BERBALAGUN
GURASOLAGUNI
EKITEKO PREST**

Azaroan zehar Ermua eta Mallabiko eskoletan Gurasolagun kanpainari ekingo zaio. “Gurasolagunek euskara praktikatu eta hobetzeaz gain, transmisioan eragitea du helburu —dio Juanmi Bravo arduradunak—. Ildo horretatik, praktika jarduera hori umeekin batera egiten da, haien askari ordua aprobetxatuz. Horrela bada, umea konturatzten joaten da euskara ez dela soilik “eskolako hizkuntza”, bere gurasoek ere, noizean behin, lagunekin-eta komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza baizik”. Bestetik, ekintzei dagokierenez, azaroaren 18an eta abenduaren 16an “Dantzantiz familiar” saioak izango dira Lobianon, guraso eta euren seme-alabentzat. Ekintza horrek ere transmisioan eragitea du helburu, ondo pasatu eta gorputza mugitzeaz gain, jakina. Saioak doanekoak izango dira 18:45etik 20:15era eta bertan aldatu eta dutxatzeko aukera edukiko du nahi duenak.

**Euskaltzaleen Sarea berriro aktibatzen
bilera egin da**

2015eko maiatzean Ermuan Bagara ekitaldia burutu zen eta bertan herriko hamaika taldek, elkartek eta norbanakok hartu zuten parte. San Martin Azokari begira ere, eragile horiek berraktibatu nahi ditu Euskal Birusa Elkartek, eta horretarako bilera egin zen urriaren 20an. “Lagun horiek San Martin Azokan parte hartzea nahi dugu: ondo pasatuz jakina, eta baita gurekin batera lan eginez (Txikurixetan txanda egiten, talo postuan, errifak saltzen, muntaian, desmuntaian...)”, dio elkartearen koordinatzailea den Amaia Arriagak. Bestalde, Euskararen Egunean ere parte hartzeko gonbitea jaso dute Euskaltzaleen Sareko kideek, eta egun horretako ekintzak kudeatzeko batzordea eratu dute jada. Aurreratu dutenez, bazkari autogestionatua egingo da abenduaren 3an Merkatu Plazan, eta saldu eta piztuko diren kriseilu kopurua bikoiztu egingo dute.

**Denboraldi berriari ekin dio Aitor Hernández
txirrindulariak**

Aitor Hernándezek 2016-2017 denboraldian izango duen lasterketa-egutegia urriaren hasieran aurkeztu zuen. Hogeita hamar ziklokros lasterketa inguru burutuko ditu eta horietatik bi heren nazioarteko mailakoak izango dira. Lehiatzeko gogotsu dago eta lehen txapelketetan emaitza onak izan ditu dagoeneko: Urduñako Hiria Sari Nagusian hirugarren izan zen (urriaren 8an), Burgosko Fresno de Rodillan garaipena lortu zuen (urriaren 12an), Medina de Pomarren bigarren izan zen (urriaren 15ean) eta hirugarren heldu zen helmugara Villarcayon (urriaren 16an). Specialized-Ermua Impulso taldeko kirolariak aitortu du orain artekoak oso lasterketa teknikoak izan direla eta lokatz apur bat nahi duela.



Argazkia: Rocío Núñez.

**Eskilarapeko Ateneoak 11. urteurrena
ospatu du**

“11 urte, 11 ekintza” lelopean urteurrena ospatu zuten Eskilarapekoko lagunek urriaren 8an. Hainbat ekintza burutu zituzten egun berezi horretan: umeentzako jolasak, herri bazkaria plazan, dokumental-emanaldia, Motxaila elektrotxararekin poteoa eta kontzertua Black Redding, Patxi Dinamita eta Komando Antilimako taldeen eskutik. Ekitaldi jendetsua izan zen, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. “Iaz, erratuta, ez genuen 10. urteurrena ospatu eta aurten ez genuen aukera hau galdu nahi”, dio antolatzaile taldekoa den Lara Alonsok.

T XALAPARTA
ABERNAEta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**Erdikokale 13
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK
943 030 299**

Heapaindegia

MT

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336

Silvia Gastón Izaquirre
facebook. <https://www.facebook.com/heapaindegiamttxuqueria.mt>

3.500 ermuarrek parte hartu zuten Ermuko AECRen II Minbiziaren Aurkako Martxan



Kamiseta zuriekin jantzitako 3.500 lagun baino gehiagok herriko kaleak bete zituzten urriaren 16an, goizeko 11:00etan. AECRen herriko batzordeak deitutako lasterketa horrek 3.400 metroko ibilbidea izan zuen eta bertan adin guztietako parte hartzaileak aritu ziren. Ekimen horren bitartez, antolatzaileen nahia da ermuarrak bizitza osasuntsurantz bultzatzea; aldi berean, minbiziaren ikerketara bideratu zuten dortsalen salmentarekin jasotako diru guztia. Bukatutakoan, zozketak, ume-

Artarrai Mendi Taldeak prest dauka 2017rako ekintzen egutegia



Ermuko Artarrai Mendi Taldeak zabaldu berri du datorren urtean burutuko dituen kirol-jardueren zerrenda (artarrai.blogspot.com.es helbidean ikusi daiteke). 45 ekintzatik gora antolatuko dituzte, besteak beste: raftingak, gertuko eta urrutiko mendietara irteerak, umeentzako irteerak, kobazulo eta mendietan zeharkaldiak, raketak, txangoak, Zuhaitz Eguna, Mugarriz Mugari eta Urko 69tan ezetz! Gainera, urteko batzarra egin zuten urriaren 20an, eta egun berean jakinarazi zituzten

aurtengo Lau Haizetara argazki lehiaketako irabazleen izenak: Lehen saria Patxi Jatok jaso du, Udalaitzetik bidalitako argazkiari esker (70€); bigarrena, Veronica Novoak, Alpeetako argazkiatik (50€), eta zozketan, Ana Gonzálezegi egokitu zaio hirugarrena (35€). La Racatik bidali zuen irudi bat azken horrek.

TXABI ETA MANU ARNALEK LIBURUA KALERATU DUTE

Ediciones La Fragatinak *El ladrón de sueños* liburua kale-ratu berri du, Txabi Arnal eta Manu Arnal anaaien azken lana. Umeei zuzendutako beldurrezko ipuin horrek Matteo Gubelliniren ilustrazioak ditu.

KEPA ACEROK HITZALDIA ESKAINI DU IZARRA CENTREN



Kepa Acero surflari ohiak eta bidaiariak hitzaldia eman zuen "Izarra Centreko Arratsaldeak" deritzon programaren barruan urriaren 20an. Surf txapelketez, bidaiez, eta batez ere, proiektu pertsonalez eta ekintzailetasunaz hitz egin zuen bertaratuakoekin. "Izarra Centreko arratsaldeak" topaketa zikloa da, non esparru ezberdinetako profesionalek hitz egiten duten ekintzailetasunaz eta berrikuntzaz.

mari asun
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

esanline[®]

+ @ + +

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esanline.es

Azaroaren 12an, larunbata: Etorri 27. San Martin Azokara!

Talo eta txorizo, babarrun eta sagardo, baserriko produktu eta animaliz beteko da Ermuko plaza eta herri osoa 27. San Martin Azokan. Euskal Birusak ekintzaz beteriko eguna prestatu du azaroaren 12rako eta bertara hurbiltzeko gonbidapena luzatzen du atsegin handiz.

Jai giroaz gozatzeaz gain, hainbat lan dago egiteko. Lagundu nahi baduzu, deitu 943179350 / 688632874 telefonora edo idatzi mezua euskalbirusa@gmail.com helbidera.

Egin beharrekoak:

- 6:00etan azokaren muntaia.
- 9:00etan plazako txosnaren muntaia.
- 15:00etatik aurrera: dena jaso.

Egunean zehar:

- Errifak saldu.
- Taloen eta tiket postuetan eta txosnan txandak egin.
- Saiheskia erre...

...animatuko zara?

JUAN ANTONIO UNANUE EPAILE

Juan Antonio Unanue "Txanga" ermuarra izango da herriko ordezkaria San Martin Azokako epaimahian. Elikai ezberdinetan adituak direnekin igaroko du goiza, lehiaketara aurkeztutako produktuak dastatzeko eta baloratzen ikasteko.

BABAJANERAKO TIKETAK AGORTZEAR

Aurreko urteetan bezala, Babajana antolatu du Euskal Birusak Merkatu Plazan. Askok eskuratu dute dagoeneko bere tiketa eta... agortzear daude! Beraz, babajan erraldoi honetan parte hartzeko asmoa baduzu, erosi zurea lehenbaiten: Erdikokale 2-1ean edo 943179350 / 688632874 telefonoetan. Prezioa, 15€.



27. SAN MARTIN AZOKAKO LAGUNTZAILEAK GARA!

HANIGANS, LURPE, HERGA, DQ, YOMI, TXANTXIKU, TORREKUA, ERTZ, KARITAKATO, TXALAPARTA, SIRIMIRI, SECRETOS, DAKOTA, TITANIC, MOLOKO, SORGIN, INFREÑU, ZUTABE, SAGARRA, CAPERÓS, KARIKATO, XAGUA, MIGEL HARATEGIA, SOLOZÁBAL ESTANKOA, PRO ARRAINDEGIA, TODO A CIEN IDOIA, EGOLEK ELEKTRIZITATEA, GAUZAK (DENDA ARROSA) SEHIGA LANERAKO ARROPAK, ANBOTO BURDINDEGIA, BETA ELEKTRIZITATEA, IRALE HORTZ KLINIKA, URRETA BURDINDEGIA, MAITE URDAITEGIA, AMAIA HARATEGIA, SAGARDUI POLTSAK eta KOKKO ARROPA DENDA.

Bitsi-denda Tailer propicia Edoju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta erailina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

eixedreams
COLCHONERIAS

-%50!!

Atsedendiaz hitz egingo dugu?

Zubiaurre 32 (Ermua)
943 177 041

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

San Martin Kulturala ekintzez lepo dator

San Martin Azokarekin batera, euskara hutsean antolatutako hainbat ekintza burutzen dira urtero Ermuan. Aurten ere ez dira faltako bertsoak, ume eta helduentzako zinea, Gaztañerre Eguna, kontzertuak, magia, antzerkia... Baietz gustuko zerbaiz topatu!

Punta-puntako bertsolariak emango diote hasiera aurtengo San Martin Kulturaleko egitarauari: Nerea Ibarzabalek, Uxue Alberdik, Alaia Martinek, Andoni Egañak, Amets Arzallusek eta Unai Iturriagak, hain zuzen ere. Antzokian arituko dira azaroaren 4an, ostirala, 22:15etik aurrera, Josu Goikoetxea gai-jartzailearen esanetara. Euskal Birusak antolatutako bertso jaialdi honetarako sarrerak salgai daude jada, 10 eurotan.

Bestalde, Ermuko Udalak *Kalebegiak* pelikula eskainiko du zineklubaren barruan

azaroaren 10ean, osteguna, 20:30ean.

Gaztañerre Eguna azaroaren 14an izango da, astelehena, 19:30etik aurrera Merkatu Plazan. Afari-merienda autogestionatu honetan parte hartzen dutenek, doan jasoko dituzte gaztaina erreak eta edariak. Gainera, 23:00ak bitartean, musika eta dantza solteekin ondo pasatzeko aukera izango dute (Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Berbalagunek antolatuta).

Musikazaleek hitzordua dute azaroaren 18an, Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko baitu Ermuko Udaleko Kultu-



ra Sailaren eskutik. Sarrerak salgai daude jada, 10 eurotan. Bere bandarekin joko du Ordorikak Ermua Antzokian, 22:15etik aurrera. Musikari lotuta ere, Santa Zezilia Egunaren omenezko kalejira eta jaialdia azaroaren 24an eta 25ean burutuko dira, hurrenez hurren, Alboka Musika Eskolak eta Txindurrik antolatuta. Amaitzeko, abenduaren 2an, ostirala, *Jokoz Kanpo* antzezlanaren aurkeztuko du Borobil Teatroak, 22:15etik aurrera Antzokian. Udalak antolatuta, 10 euroko sarrera ordaindu beharko da.

Umeentzako ekimenak

Umeei bereziki zuzendutako hainbat ekimenez gozatzeko aukera ere egongo da

San Martin Kulturalean. Hor-taz, azaroaren 4an eta 11n "Barixakueta" saioak eskainiko ditu Antzixiketan Aisialdi Taldeak plazan (17:00etatik 19:00etara). Azaroaren 13an, igandea, *Ozzy* filma ikusteko aukera izango dute umeek Antzokian (17:00etan, Ermuko Udalak antolatuta). Hilaren 19an, berriz, "Arratsaldean kontu kontari" saioa ikusi eta entzun ahal izango dute Udal Liburutegian, Udal Liburutegiak antolatuta (17:30etik aurrera). Azkenik, Sun magoak *Magic Spectacular* ikuskizuna eskainiko du Antzokian azaroaren 26an, larunbata, 17:00etan (sarrera, 4 euro), Udalak antolatuta.

Dorleta Vidal



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Marta Moreno, ametsak egi bihurtuz

Marta Moreno bidaia zale amorratua da. 24 urte ditu eta dagoeneko hiru hilabete eman ditu Perun kolaboratzaile bezala (ekainetik irailera bitartean) eta urtebete Irlandan *au pair* moduan. Gainera, bisita ugari dituen “Mis kilos por el mundo” blogaren sortzailea da.

Perura bidaia zela-eta, bloga abiatzea erabaki zuen Martak, familiarekin harremanetan jartzeko era bat izango zelakoan, baina espero baino bisita askoz gehiago jaso zituen: Peruko Caritas elkarteak irakurri, hemengo lagunek, ezagunek... sarrera asko! Gainera, komunikatzeko bidea izateaz gain, Martak bere bizi-penak, sentimenduak eta beste zenbait gauza adierazten ditu “Mis kilos por el mundo” blogean egun. Bere konplexuak gaintzearen ondorioz otu zitzaion blogaren izena, Martak hainbat konplexu izan baititu pisua dela-eta, baina aurrera egiten jarraitu du eta horrek ez diola bidaiatzeko ametsa zapuztuko aitortu du.

Perura joateko beka lortu zuen eta Juditekin, 24 urteko erizain gasteiztarrarekin, batera ekin zion abentura honi. “Esperientzia gogorra izan da –aitortu du Martak–, baina errepikatze modukoa”. Bere eremuan petrolio isurketa bat egon zen eta horrek egoera larritu zuen bertako herriketetan: petrolio hodiak ibaiaren azpitik doaz eta ura gutziz kutsatuta zegoen. Ezin zuten bertatik edan, ez ureztatu... Gainera, animaliak bertako ura edaten zuten, kutsatuta zeuden, eta ezin zituzten ehizatu.

Bertako komunitateek ez dute ur edangarririk, ez elektrizitaterik, ez isurbiderik. Higienea ez da batere ona,



horrela Martak eta Juditekin hiru hilabete eman zituzten 50 graduko tenperaturan, hezetasuna nagusi. Oihanean, tximino, krokodilo, suge eta mendiko arratoien artean; ahaztu barik, kutsatutako arrainak ere nonahi zeudela.

Garraibide ohikoena itsasontzia da, eta komunitatera petrolio itasontziz iritsiz gero, bi orduz argia izan dezakete. Elikagai ohikoena *masatoa* da, eta *yuka* oihaneko oinarritzako jakia da, gutxi janda asko asetzen duelako. Patata moduko fruta da, emakumeek murtxikatzen dutena, eta murtxikatzean platerera botatzen dute hartzitu arte. Jaki hori eskainiz gero, begi txarrez ikusten da ezetz esatea.

Martak kolaboratzaile lanak egiten zituen bertan, eta herrikideekin zenbait ekintza, tailer eta dinamikak burutu zituen. Kultura berriak ezagutu ditu eta uraren garrantziaz ere ohartu da. “Bertako jendeak asko daki, esperientzia asko daukate, nahiz eta askok ez jakin irakurtzen ezta idazten”, dio Martak. Egoera laztan bizi dira hala ere. Petroperu enpresak ura zein elikagaiak ematen dizkie komunitateei, baina ez da nahikoa, ume asko daudelako, familia ugariak baitira gehienak. Kasu horretan desnutritzioa saihesten ahalgintzen da Caritas eta formazio bat izan dezaten.

Armaia Arginzoniz



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Drogeteniturrri, 249 zkia.

uriarteasesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Europako Mugikortasunaren Astea

Mundu osoan bezala, irailaren 16tik 22ra Europako Mugikortasunaren Astea ospatu zen Ermuan ere. Hori dela eta, hainbat ekintza prestatu ziren herrian. Ongarai Eskolako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek, bideko segurtasunari lotutako marrazketa eta eskulan tailerrak egin zituzten Antxintxiketan taldeko monitoreen laguntzaz. 6. mailakoek, ostera, bizikletekin egin zituzten segurtasun ariketak Aritzemendi frontoian. Egindako lan guztiak ikusgai egon ziren irailaren 22an Merkatu Plazan.



Azterkosta

Urtero bezala, Ongarai Eskolako ikasleak beste ikaste-txeekin batera Azterkosta irteeran parte hartu zuten, eta Debako hondartzara joan ziren. Euskal kostaldearen egoerari buruzko balorazio orokorrak egiteko aukera eskaintzen du programak. Eginkizun horrek arazoak detektatu eta soluzioak iradokitzen ditu, natura-ingurunea ezagutzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko. Aurtengo edizioan, parte-hartzaileek bildutako datuekin sailkapena eta identifikazio-lanak egingo dira, herritarren ikuspuntua jasoko duen Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldearen ingurumen-egoerari buruzko txostena egiteko.



4 urtekoak baratzean

4 urteko ikasleak eskolako baratzerara joan ziren 3 urteko gelan landatutako marrubi landareak eta loreak nola zeuden ikustera. Baratza guztia ikusi zuten eta aurkitu zituzten marrubi, piper, tomate, piper minak, kiwiak eta abar... otzaratxoan bildu zituzten. Ondoren baratzean dagoen kiwi landarearen itzalpean jarri eta han baratzki eta fruitu horiek ukitu, zatitu, usaindu eta dastatu zituzten. Joan aurretik tomate landare batzuk lehor xamar ikusi eta ureztatu egin zituzten. Primeran pasa zutela-eta, bueltatuko direla esan zuten, bai horixe!





 Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala


- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



IZASKUN TXURRUKA

Goiencate 9 Bajo
 48260 Ermua Bizkaia
 94 317 66 90
 peluqueriaizaskun@gmail.com
 peluqueriaizaskun.wordpress.com



TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekuakalea 2 - Ermua
 943 17 69 29

M A R I V I L I S T A

- **Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?**

Alaia. Gogoratzen dut etxe guztietako ateak zabalik egoten zirela, eta amek balkoitik deitzen gintuzten. Kotxerik ez zegoenez, zuhaitzak eta bankuak zeuden bide erdian.

- **Zer izan nahi zenuen txikitari?**

Moja edo balleteko dantzaria.

- **Ikasteko aukerarik?**

OHO bukatu eta Lanbide Heziketan Administrazioa ikasi nuen. Gero UBI egin nuen, eta horrekin bukatu. Euskarari ekin nion orduan.

- **Ez dakizu txikitatik?**

Ez, 20 urte ingururekin hasi nintzen HABEko proiektu batean. Egunean bost orduz aritzen ginen eta lehen urtean banekien zerbait hitz egiten.

- **Noiz hasi zinen lanean?**

Euskaltegian bertan gelak garbitzeko jendea behar zuten, eta han hasi nintzen. Udan eskoletatik deitzen zidaten eta administrariaren bulego guztietan egin dut lan. Orain Udalean daukat kontratua.

- **Beti garbiketan?**

Administrari lanetan ere ibili nintzen zerbait, eta zenbait umeri euskarazko klaseak eman nizkien.

- **Zer da zure lanaz gehien gustatzen zaizuna?**

Erosoa dela. Librea naiz berau antolatzeko: badakit zer garbitu behar duan eta zenbat denbora duan. Arratsaldean egin behar dut lana, 7 orduz, baina nahiko ordutegi malgua dugu.



Ermuan jaio zen duela 54 urte, Santa Ana auzoan. Lau neba-arreben artean, bigarrena da. Paco Muñoz "Pintxe" rekin ezkondu da eta bi seme dituzte: Aritz eta Ekaitz. Hogeita hamar urte inguru daramatza garbiketa lanetan, azken zortziak Udaletxean.

- **Eta gutxien?**

Krisia dela eta ez dela, ez direla bajak betetzen. Hiru garbitzaile gara eta baten bat falta denean, beste biak itota ibiltzen gara.

- **Non ezagutu zenuen gizona?**

Hauteskunde batzuetan. Ni boluntarioa nintzen mahaiakoei laguntzeko, eta bera Euskadiko Ezkerreko ordezkaria. Lagunen artean izan nintzen mutila topatu zuen azkena eta ezkondu zen lehena.

- **Txikitako lagunak dituzu oraindik?**

Bai. Kontaktua galdu genuen bolada batean, baina berreskuratu dugu eta urtero bidaiatxoak egiten dugu.

- **Bidaia zalea zara?**

Bai, leku askotan egon naiz Pacorekin eta Paco bari. Argentinara joateko asmoa dugu orain, lagunekin.

- **Asteburu arrunt batean...**

Sofan etzan eta telebista ikustea gustatzen zait, Foxeko telesailak eta pelikulak. Urteekin alferatu egin naiz.

- **Kirolik ez?**

Bai, astean birritan spinning eta hipopresiboak egiten ditut. Beti berandu helitzen naiz!

- **Zine zalea zara?**

Bai, lagunekin joaten naiz batzuetan.

- **Plazer txiki bat?**

Kalean gosaltzea asko gustatzen zait.

- **Jatun ona zara?**

Bai, denetarik jaten dut. Aipatzekotan, arrautzak piper gorriekin.

- **Biziorik?**

Gominolak. Tabakoa utzi nuen, ordezkotzat hartu nituen. Orain gutxiago jaten ditut.

- **Erraz haserretzen zara?**

Ez. Baina haserretzen bannaiz, haserretzen naiz.

- **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Gezurrak.

- **Familia giroa duzu gustuko?**

Bai. Domeketan saiatzen naiz guztiok elkartzen, eta elkarrekin bermuta hartzen dugu.

- **Zer hobetu daiteke herrian?**

Uste dut egiten diren gauzak txiki geratzen zaizkigula. Gainera, ume eta gazte asko ditugu, eta ez daukate non jolastu, eta non egon: plaza eta baloia, ez dute besterik.

- **Zein albiste irakurri nahiko zenuke?**

Alderdi politikoei bat egin eta helburu komunak alde lan egingo dutela.

- **Berriro jaioko bazina?**

Ez nuke ezer aldatuko, pozik nago.

Dorleta Vidal



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

DROGETEN ITTUERRI

Publizitatea:

943 179350
688 632876

drogeten@gmail.com



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Lorea Rojo, sokatiralaria:

“Entrenamenduak txapelketak baino gogorragoak dira”

Lorea Rojo sokatiralari ermuarra da. 33 urte ditu eta Administrazio eta Finantza Goi Mailako Zikloa ikasi du Lea Artibai Ikastetxean. 2004-2005 denboraldian Gasteizko Badaioz taldean sartu zen eta ordutik sokatirari lotuta dihardu. Holandako aurtengo mundialetan zilarra eta brontzea lortu du bere taldeak, eta Euskadi mailan urrea lortu dute.

- Nolatan hasi zinen sokatiraren munduan?

Entrenatzaileak, Jon Lapazarane, nire aitarekin lan egiten zuen eta horren bitartez sartu nintzen taldean, neska bila baitzebiltzan. Gasteizen Farmazia ikasten ari nintzen, probatzera joan eta bertan piztu zitzaizkidan jarraitzeko grina.

- Zenbat eta nola entrenatzen duzue?

Astean 3 egun entrenatzen dugu, 2 ordu egun bakoitzeko. Hemen bakarrik soka lantzen dugu, eta horrez gain korrika, abdominallak eta flexioak egiten ditugu. Entrenamenduak txapelketak baino gogorragoak dira, taldearen mentalitatea

gogor entrenatzea baita, dena emateko prest egoteko. Egia da aurreko entrenatzailearekin ez genuela titulurik lortu, Jonek eraman gaitu, esfortzuekin, sariak irabaztera.

- Zein modalitatetan aritzen zara?

Goma gainean jokatzeko, eta bertan bi pisu mota daude: 8x8 eta 4x4. 4x4 kategorian 260kg. izan behar ditu taldeak guztira; 8x8koan, berriz, bi pisu daude, 500kg. edo 540kg. guztira. Epaileak agintzen duenean, tiratzen hasi eta 4 metro atzera egin behar da garaipea lortzeko.

- Noiz hasten da zuen denboraldia?



Ezkerretik hasita, bigarrena da Lorea Rojo.

Azaroan hasi eta martxoan bukatzen da Euskadiko txapelketa. Mundiala badago, berriz, otsailean bukatzen da.

- Zeintzuk titulu irabazi dituzue jada?

Batzuk bai! Aipatzekotan mundialetan. Honek bi zati ditu, lehenengo zatia ostegun eta ostiraletan izaten da, eta taldeka lehiatzen da; larunbatean eta igandean, berriz, selekzioek tiratzen dute. Aurten lortu dugu zilarra 500 kilotan Badaioz-ekin eta Euskadiko Selektioarekin brontzea bai 500 kilotan baita 540 kilotan. Horrez gain, Euskadiko Txa-

pelketako azkeneko emaitzak urrea izan dira. Aurten Holandan jokatu da mundiala. Guk ordaindu behar izan dugu bidaia, eta dirua lortzeko hainbat ekintza egin ditugu. Datorren urtean Mundiala Txinan da, beraz, ekintzak egiten hasiko gara eta bekak eskatzen.

- Gizon eta emakumeen sokatira parekatuta daude?

Ez, emakumezkoen kirola ez dago ondo baloratuta. Telebistan gizonezkoen sokatira ia ordu betez botatzen dute eta emakumezkoena, berriz, bost minutuz soilik.

Armaia Arginzoniz



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

<ul style="list-style-type: none"> - Toldoak - Ostalaritzarako muntaiak - Pertsianak - Instalakuntzak eta konponketak - Motorizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Manparak - Segurtasun pertsianak - Pertsiana dekoratiboak - Estoreak - Eltxo-sareak
---	---

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Ile-apaindegi bat
baino gehiago!

 Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es

egolek

electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Probatuak badaki

Nik gaztelania ama-hizkuntza dut eta euskara andereño-hizkuntza, zorte hori daukat. Elebarkarra banintz motibazio berezia beharko nuke orain euskara ikasteko, eta egoera horretan ikusten dut pertsona asko inguruan. Zerk bultzatzen du gaur pertsona bat euskara ikastera, edo ez ikastera? Maitasunak?

Hizkuntz-politikaren garaian bizi gara. Politika indarraren eremua da, inposaketarena. Hizkuntzak ordena sozial espontaneo ebolutiboak dira. Eboluzioari bultzatza, traba, mesede eta indar egin dakioke politikatik, baina koakzio hori pertsonok jasaten dugu. Gogoz ala etsita. Politikaren koakzio guztiak bezala, noski. Eta koakzioak mina eragiten du.

Eta orduan, euskara rollo bat da. Rollo bat da borroka bat de-

nean, rollo bat da inposaketa bat denean, rollo bat da betebehar bat denean, rollo bat da natural ez denean. Rolloa drama ez denean, gaitzerdi.

Eta ez nago politikaren kontra, baina pentsatzen dut gizarteak eremu ireki eta despolitizatua behar duela izan, arnas gunea, kulturarako plaza, merkataritzarako, askatasunerako, bizikidetzeta eta kooperaziorako. Eta politikatik, pertsoneri bakea eman. Hori da nire utopia txikia.

Musika gustatzen zait, palindromoak, umorea. Letra artean gustura ibiltzen naiz, hizkuntza batean ala bestean, jakina, eta ikusten dut batak bestea aberasten duela; Lope de Vegaren soneto honek, adibidez, euskaratuta, indar berria hartzen duela.



Markos Gimeno

Zorabiatu, ausartu, sutan jarri, garratz, atsegin, eskuzabal, mizkin, adoretu, hilkor, hildako, bizi, berbako, traidore, koldar, azarri;

onetik at ez pausa ez zentro igarri, pozik ager, hits, umil, buruiritzi, haserretu, ausart, iheskor, izi, asebate, ofenditu, susmari;

etsipen hutsari begiak ihes, pozoia edan pattar gozoagatik, onura ahaztu, oinazea maita minez;

zerua uste infernu baten zati, gogo ta bizi etsipen bati ekinez; maitasuna: probatuak badaki.

“ Ez nago politikaren kontra, baina uste dut gizarteak eremu irekia eta despolitizatua behar duela izan ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



Pub Dakota



Probaleku, z/g
 Ermua (Bizkaia)
 dakotaermua@hotmail.com

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. ☎ 648 64 37 15

Pisua alokatzen dut Iparragirre kalean. Bi logela ditu. ☎ 669 20 91 83



Urriaren 28an
Zorionak Eder, 3 urte betetzen dituzu!! Musu potolo bat Izaro, aitaxo eta amaxoren partez.



Urriaren 21ean
Zorionak aitaxito! Aurten urtebetetzea Ermuan pasatuko duzu, topera disfrutatu! Maite zaitugu! Araia eta etxekoan partez, musu bat!



Azaroaren 5ean
Zorionak Naia zure 8. urtebetetzean! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta musu handi bat etxekoan partez.



Urriaren 19an
Zorionak Unax, 9 urte!!! Muxu handi eta potolo bat etxekoan partez.



Azaroaren 9an
Ermuko aitxitxa eta amamaren partez: Zorionak Igor zure lehen urtebetetzean. Musu handi bat!



Azaroaren 10ean
Zorionak Julene!! Zure 3. urtebetetzean, egun hau merezi duzun bezain ondo pasa dezazula! Etxekoan partez!



Urriaren 31n
Zorionak Lander! Muxu pila etxekoan partez zure bigarren urtebetetzean.



Urriaren 16an (Naroa) eta azaroaren 2an (Amets)
Zorionak Naroa eta Amets! Pixkanaka-pixkanaka nagusiak egiten ari zarete, muxu handi bat familia guztia, aita eta amaren partez.



Cristina (azaroaren 3an) eta Jone (azaroaren 9an)
Zorionak Cristina eta Jone zuen lagun Yaiza, Eneritz, Miren eta Ane txikiaren partez. Egun edarra eduki dezazuela!



Haizea (urriaren 22an) eta Gorka (azaroaren 13an)
Zorionak Haizea eta Gorka, Agirregomezkorta eta Araiztegi-Aja familiaren partez! Gozatu eguna!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Azaroaren 16a.**

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [B]

Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) • 943 17 66 08

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**MALLABIA
1956**

Argazki hau 1956 urte ingurukoa da. Bertan Mallabiko Eskolako umeak agertzen dira. Denak dira neskak, orduan neska eta mutilak gela ezberdinetan egoten baitziren.

Izen bat falta da, eskuman dagoen lehenengo neskarena. Norbaitek badaki, bidali izena drogeten@gmail.com helbidera, eta datorren hilabeteko Drogeteniturrin jarriko dugu. Hauek dira gainontzeko umeak:

Arrate Garitaonaindia, Mari Tere Urkidi, Begoñita Biritxinaga, Rosita Zelaieta, Mari Tere Gerrikabeitia, Nati Arregi, Begoña Onaindia, Mari Carmen Gandiaga, Maria Pilar Intxaurreaga, Doña Aurora (irakaslea), Pili Olartekoetxea, Maria Pilar Areitioaurtena, Ana Mari Mallabiabarrena, Miren Antxia, Rosarito Mugika, Lourdes Astarloa, Lourdes Mugarza, Mari Tere Mallabiabarrena, Victoria Arriaga, Rosarito Ortuzar, Mari Tere Onaindia, Arantxa Cepero, Lourdes Garitaonaindia, Vicenta Arriaga, Mari Carmen Ormaetxea, Eulalia Bilbao, Laurita Antxia, Begoñita Olano, Mariasun Uriarte eta ??.

**ERMUA
1942**

Lau ahizpa, zaharrenetik hasita Puri, Rosi, Higinita eta Inmaculada Solozabal Larruskain. Elkarrekin erretraturik ez zutela eta ahalegin guztiak eginda prestatu zituen ama Mariak Durangora fotografoarengana eramateko, arroparik dotoretxoena soinean eta ileak pintxo baino pintxoago orraztuta. Ohikoa zen bezala, familia guztietan nagusien arropak gaztearenganaino ailegatzen ziren eta, handi edo estu izan, azken honek triskatzen zituen. Horren adibide Inmaculadaren oinetakoak: bere ahizpetako batenak izan, nasaiegi antza eta galtzerdi potolo pare bi jantzita konpondu zuten. Eta gustura!

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

**Diru-zorroa zabaldu eta Ermua eta Mallabitik irteteko behar ditugun garraio-txartelak bistan geratzen zaizkigu: Barik, Mugi, Lurraldebus...
Guztiak diruarekin kargatuta eta –helmuga eta garraio motaren arabera– erabiltzeko prest.**

**Zein garraio-txartel erabiltzen dituzu?
Zer deritzozu txartel ezberdinak egoteari?**

Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan egoteak areagotzen du txartel ezberdinak erabili behar izatea?



Egunero erabiltzen dut tren, eta Mugi daukat. Badakit herri jakin bateraino bakarrik erabil daitekeela, baina ez naiz Gipuzkoatik irteten eta irteten banaiz kotxean noa, beraz, ez dut beste txartelik behar. Hala ere, antolaketa txarra dago, txartel guztiak bateratu beharko lituzkete.

Ainara Pérez, 19 urte



Trena eta autobusa erabiltzen ditut ia egunero eta Mugi bakarrik daukat. Mugan egon arren, zortea daukagu, garraioak bailara-ka antolatuta daudelako, eta horregatik ez digu horrenbeste eragiten. Hala ere, kontu honek gogaitzen nau, txartelek bateratuta egon beharko lukete.

Unai Urzainqui, 22 urte



Trena eta autobusa erabili ohi ditut eta Barik eta Mugi txartelak ditut. Ondo antolatuta dagoela iruditzen zait: Bizkairako txartel bat eta Gipuzkoarako beste bat. Arazoa egon daiteke Donostian bizi den baten batek Barik txartela eskuratu nahi badu, baina seguruenik ez du larregi erabiliko.

Marina Zendoia, 50 urte



Trena erabiltzen dut egunero eta autobusa ere. Barik eta Lurraldebus txartelak ditut. Pixka bat txapa da txartel biak eramatea eta biak kargatzea, bateratuta egon beharko lukete. Esango nuke mugan gaudenez txartelen kontu honek gehiago eragiten digula.

Iñigo Ugarte, 14 urte

Tasio eta Sabino



- Kaixo, garraio publikorako txartela nahi nuen.
- Zein? Nora joango zaren eta zein garraio mota erabiliko duzun arabera...



- Kontxo! Euskal Herritik osteratxoa egiteko!

ZINEA

5etik 7ra:

"El hogar de Miss Peregrin para niños peculiares" + "Inferno"

12tik 14ra:

"Historia de una pasión" + "Snowden"

19tik 21era:

"Que Dios nos perdone" + "La chica del tren"

26tik 28ra:

"Yo, Daniel Blake" + "Sully"

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3:

"Sing street"

Hilak 10:

"Kalebegiak"

Hilak 17:

"Sparrows"

Hilak 24:

"Después de nosotros"

Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 6:

"Robinson Crusoe"

Hilak 13:

"Ozzy (euskaraz)"

Hilak 20:

"Cigüeñas 3D"

Hilak 27:

"Trolls 3D"

Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 5:

Kontzertua: Rojo cancionero (México Rebelde jardunaldiak).
19:00etan. Plazan.

Hilak 18:

Kontzertua: Ruper Ordorika. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 19:

Blues kontzertua: The Congress. 20:00etan.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera: 8€

Hilak 22:

Zezenia Deunaren diana: Irulitxa txaranga.
7:00etan.

Hilak 24:

Zezenia Deunaren kalejira. 18:30ean.

Hilak 25:

Zezenia Deunaren jaialdia. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 3€

Hilak 27:

Afrikako musikaren kontzertua: Ndiouk Bande. 17:00etan.
Lobiano Kultur Gunean.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 4 eta 11:

Haurrentzako jolasak: Barixakuetan.
17:00etan. Plazan.

Hilak 5 eta 19:

Ipuin kontaketak. Hilaren 5ean ingelesez eta 19an euskaraz.
17:30ean. Lobianon.

Hilak 26:

Magia ikuskizuna: "Magic spectacular", Sun magoaren eskutik.
17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 5€

ANTZERKIA

Hilak 11:

Umore ikuskizuna: "Que no nos frunjan la fiesta", David Guaporen eskutik.
22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€

ERAKUSKETA

Hilaren 10era arte :

Margoa: Obras de Pablo Navas.

14tik 27ra:

Ertibil-Bizkaia: Bizkaiko artista gazteak.

28tik 11ra:

Argazkiak: "2016ko oporrak" lehiaketara aurkeztutako lanak. Lobianon. 18:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

Hilak 4:

Bertso saioa: Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Alaia Martin. Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea. 22:15ean. Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 12:

San Martin Azoka: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Plazan eta inguruetan.

Hilak 14:

Gaztañerre. Afari herrikoia eta dantza saioa. 20:00etan. Merkatu plazan.

Hilaren 14tik 20ra:

Andaluziako Zentroaren Kultur Astea: Hainbat ekitaldi. Andaluziako kultur Zentroan eta San Pelaio plazan.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

San Martin Kulturala 2016

Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, azaroaren 4an, 22.15ean

Andoni
Egaña



Alaia
Martin



Nerea
Ibarzabal



Ametz
Arzallus



Uxue
Alberdi



Unai
Iturriaga



Gai-jartzailea

Josu
Goikoetxea



Sarrera: 10€
Lobiano Kulturgunean,
Kutsabankeko kutsazain,
webgunean eta
944 310 310
telefonoan saial.



DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria **ITTURRI**

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian,
liburutegian, euskaltegian,
Abiapuntun, hortz klinikan,
okindegian, anbulatorioan...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta hel-
bidea drogeten@gmail.com hel-
bidera eta hilerro-hilerro etxeko
buzoian jasoko duzu.

Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua:

XXVII. SAN MARTIN

AZOKA



AZAROAREN
12AN, LARUNBATA



11:00

- Azoka jendearentzat zabalduko da.
- Kalejira Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.
- 'KULKI' rekin umeentzako jolasak eta ikastetxeetako postuak San Martin plazan.
- Ehun buruko artaldea eta 5 astoren jaitsiera Errekaldetik Baldespina.
- Abere erakusketa Baldespina parkean.
- Idi pareak probalekun.
- Artisauen postuak Santiago plazan.
- 'Astobusa' Zubiaurren.
- Txerri errifak salgai kalean.
- Argazki lehiaketa egunean zehar. Argazkian agertu behar da: pertsona edo talde bat, txerri bat eta euskarazko lelo bat #zuterrileoa.

10:00-12:30

- Euskal jantzien erakusketa Lobianon. Eskolabarrik antolatua.

11:00-14:00

- Zenbat pisatzen du aurtengo txerriak? Apustua euro 1. Saria: jasotakoaren %70a. Pisua 14:00etan jakinaraziko da.

12:30

- Euskal dantzak plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

13:00

- Herri kirolak Komentukuan. Aizkora: Aratz Mugerza eta Jesus Mari Mujika. Txingak: Xanta Sousa (Euskadiko txapelduna). Aizkora, lokotx-bilketa eta trontza: Irati Astondoa. Motozerrarekin figurak.

13:30

- Sari banaketa postuz-postu. Erakusleihu lehiaketako irabazleek oholtzan jasoko dute saria.

15:30

- Babajana Merkatu Plazan: 15 euro (babak, odolostea, txorixoa, saiheskia, postrea eta kafea). Tiketak salgai Erdikokale 2-1 edo 688632874.

18:00

- Erromeria 'LUHARTZ' taldearekin Orbe plazan.

19:00

- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.

19:30

- Errifa zozketa Orbe plazan.
- Larraindantza Orbe plazan.

ANTOLATZAILEAK



ERMUKO UDALEKO KULTURA,
EUSKARA ETA BERINTASUN SAILAK



MUSIKAZ
ESBOLE



ERMUKO UDALEKO KULTURA,
EUSKARA ETA BERINTASUN SAILAK



ERMUKO UDALEKO KULTURA,
EUSKARA ETA BERINTASUN SAILAK



BABESLEAK

